

Zenbait izen aipatu dira Euskaltzaindiko Laguntzailleak izendatzen diranerako.

Haritschelhar-ek esan du nola Euskaltzaleen Biltzarra buruilaren 8-an Ezpeleta-n egingo duten.

Loidi-k dio nola San Telmo-n talde bat asi dan biltzen eta nola gaur eguneko itzen iztegi bat asi diran moldatzen. *A* eta *b* letrak arakatu omen dituzte eta illean bi aldiz bilduko omen dira.

Oleaga-k itz egin du Azkue-ri Parraga-k egin zion kuadruez. Parraga da jabea eta dio zenbat balio duen galdetzea komeni litzaiokcala beste batzuen eskuetara joan baiño lehen. Eman bidez pausook eta erosi behar balitz Bizkaiko Diputazioaren laguntasuna billatu bedi.

Bertsolarien txapelketez itz egin da. Agustuaren 15-ean Zeanuri-n egin da bat eta beste bat 21-ean Mungia-n.

Juraduak izendatu dira Domingo Agirre novela sarirako eta Gernika sarietarako. Lendabizikoan sartu dira: Arregi, Arrue eta Erkiaga. Bigarrengoan Zubikarai, Labayen, Aresti, Gereño eta Ziarsolo.

Satrustegi-k Aita Felipe Murieta-koaren eriotzea jakiñerazi du. Gure dolu miñak ager bitez.

Besterik gabe oidan otoitzarekin asi eta bukatu du batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

I. IRIGARAY

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Loiola-n, 1966-IX-25.

Bildu dira. Lekuona, buru, Arrue, Labayen, San Martin, Erkiaga, Zavala eta Irigoyen euskaltzainak. Beobide, Oregi, Juan Garmendia, Zubikarai, Etxenagusia, Xal-bador Garmendia, Oleaga, Altuna, Zugasti, Zatarain, Etxaniz, Gereño, Andrinua, Aresti, Arkotxa, Juan Goikoetxea S. J., Valverde, Loidi, Juan M. Lekuona, Astiz, Agirretxe, Etxeandia eta Aita Julian Igorre-koa.

Lojendio-k ezin etorria adierazi du, baiña ministroarentzako gertatu duen eska-bidea bialdu du Oleaga, Santamaria eta Mitxelena-k eraturako lanekin batera.

Arrue-k, goian aipatutako gauza orietaz itz egin du. Eskabidea irakurri da eta bilduak zenbait iritzi eman dituzte. Batez ere Erkiaga, San Martin, Aresti, Gereño, Beobide, Altuna eta Oleaga-k itz egin dute eta aldaketa txiki batzuek egiñik ontzat artu da eskabidea. Beraz, Madrilleko Ministerio-ra bialtzeko prest.

Joan dan batzarrean Gernika sarietarako izendatu zan juraduan Ziarsolo-k eztu parte artuko lan bat bialdu baitu eta Aresti-k bere ezetza eman du beste arrazoi batzuekatik.

Urrengo batzarrea Mañari-n izango da E. Bustintza «Kirikiño» zanaren omenez urriaren 23-an.

Oi dan otoitzarekin asi eta bukatu da batzarrea.

*Euskaltzainburuordea*

MANUEL LEKUONA

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN